


Euskal AEko eraikuntza-kostuak % 1,1 garestitu ziren 2016ko urtarrilean, aurreko hilarekin alderatuta

lazko urtarrilarekin konparatuta, eraikuntza-kostuak % 1,0 garestitu dira

Euskal AEko eraikuntzako kostuen indizea % 1,1 handitu zen 2016ko urtarrilean, aurreko hilarekin alderatuta. Bestalde, hil horretako urtez urteko tasa % 1,0 handitu zen, EUSTATEK emandako datuen arabera.



Aurreko hilekoaren aldean, % 1,0 handitu zen lan-eskuaren kostua, eta lehengaien kostuak % 1,1 handitu ziren.

Azpisektoreka, etxegintzak eta obra zibilak bilakaera desberdina izan dute urtarrilean lehengaien kostuei dagokienez aurreko hilarekin alderatuta; izan ere, eraikuntzako lehengaiak % 1,3 handitu dira eta obra zibilekoak, berriz, % 0,3 txikitu. Bi azpisektore

horien urte arteko bilakaera ere desberdina izan da. Etxegintzako lehengaien kostuak % 1,3 handitu dira eta obra zibilekoak, aldiz, % 1,5 txikitu.

Sektoreak kontsumitu dituen lehengaietako batzuen urte arteko prezioak garestitu egin dira, 2015eko urtarrilekoekin alderatuz. Nabarmentzekoak dira *metalarena ez den industriakoak* (% 4,1 handiagoak), *zuraren industriakoak* (% 3,4 handiagoak) eta *metalezkoak ez diren mineralenak* (% 2,5 handiagoak). Aldiz, beste sektore batzuetako lehengaien prezioak txikitu egin dira azken hamabi hilabeteetan. Aipatzekoak dira *petrolioaren finketaren sektorekoak* (% 21,3 txikiagoak), *metalurgiarenak* (% 8,0 txikiagoak) eta *material elektronikoarenak* (% 0,9 txikiagoak).

1. TAULA. EUSKAL AEKO ERAIKUNTZAREN KOSTUEN INDIZEA. ALDAKUNTZA TASAK (p). 2016KO URTARRILA

	INDIZEA	ALDEAREN %		
		m/m-1	m/m-12	m/abendua
GUZTIRA	102,8	1,1	1,0	1,1
Eraikinak	103,3	1,3	1,3	1,3
Obra zibila	100,0	0,0	-0,9	0,0
LEHENGAI	101,7	1,1	0,9	1,1
Eraikinak	102,3	1,3	1,3	1,3
Obra zibila	98,0	-0,3	-1,5	-0,3
LAN-ESKUA	106,7	1,0	1,0	1,0

Oinarria 2010=100
 (p) behin-behinekoa

Iturria: Eustat. Eraikuntzako kostuen indizea

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística
 Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz
 Prentsa zerbitzua: servicioprensa@eustat.eus Tel.: 945 01 75 62
 Euskal AEko Eraikuntzako kostuen indizeari buruzko prentsa-ohar gehiago (EEKI)
 Euskal AEko Eraikuntzako kostuen indizeari buruzko datu-bankua (EEKI)